

MAMEN ESCRIBANO (ALBAITARIA)

## “Animalia bat edukitzea ez da ‘antojo’ bat”

■ Jende askok du txakurra etxean; eta katur ere gero eta gehiagok ■ Ondo bakunatu eta zaindu behar omen dira animalia hauek.



Mamen bere azken bezeroari errebisioa pasatzen, Orkolagako kontsultan.

### ■ KRONIKA: Zein animaliekin egiten duzue lan?

MAMEN: Guk txakur eta katuekin egiten dugu lan, ez animalia haundiekin (behi, zaldi...); baina, jendea batzutan etortzen zaigu horiekin ere.

### ■ Zertan izaten duzue lanik gehien?

Guk animaliak sendatzeaz gain, jendea asesoratu egiten dugu. Txakur edo katu bat eduki nahi duen jendea, ehiztariak...

### ■ Jendeak ondo zaintzen al ditu animaliak?

Askok bai eta beste askok ez. Zenbaitek txakurrak balio ez dionean sakrifikatu egiten du. Beste zenbaitek suelto uzten du kalean eta ez da batere ohitura ona. Ohitura hauek aldatu egin behar dira.

### ■ Gomendioak.

Animaliaren beharrak ulertu behar dira: paseatzera atera, berekin jolastu... Zenbaitek ahaztu egiten du animalia bat edukitzea ez dela *antojo* bat; txakur bat esaterako 12 urte inguru bizi da.

### ■ Animalia bat etxean izateak pertsonentzako arriskurik suposatzen al du?

Bakunatu eta zainduz gero ez.

### ■ Kalean gero eta borroka txakur gehiago ikusten da. Ez al da arriskutsua?

Segun nagusia. Hala moduzko jendearen eskuetan ikusten dira sarritan eta... Txakur hauei, karakterra kontrolatu behar zaie eta ondo kasu egiten irakatsi.

### ■ Zer jaten eman behar zaie txakur eta katuei?

Onena pentsua ematea da. Jana etxean eginez gero orekatua izatea: berdura, haragia... baina, hezurrik ez! Ertz zorrotzak dituzte eta arriskutsuak dira.

### ■ Eta tratamenduak?

Legeak *txipa* jartzea bakarrik eskatzen du; baina, parasitoak kendu eta bakunatzea ere oso komenigarria da.

### ■ Zein da ekarri dizueten animaliarik arraroena?

Behin lehoi kume bat ekarri ziguten zirkotik. Amak abandonatu eta butano bonbona bat gainera erori zitzaiona. 2 kilorekin ekarri ea 15ekin bueltatu genien 3 astetara, egunean libra eta erdi haragi jaten zuela. Pitoi sugea ere bai behin, azalean hongoak zituena. Sendatu genuen. Boak, uduak, iguanak... ere ekarri izan dizkigute. □

INGURUKO EHIZA TXAPELKETA

## Hiru hernaniar Urnietara txapela botatzera

■ Sei herrietako ehiztariak aterako dira Besabitik gorako mendian ■ 12:00etatik 17:00etara izango da.

BATASUNA PROZESUA

## Hernanin ‘Bateginez’ ponentziak irabazi du

■ Giro ona eta ikuspegi ezberdinak nabarmendu ditu koordinatzaile batek ■ Orain, enmendakin fasea.



Batasuna prozesuko batzarra ostegunean, Biterin.

ZAZPI hilabeteko bilerak eta gero, Batasuna prozesuan botazioa egin zen ostegunean. Ezker Abertzalearen Eraketa eta ildo politikoa markatuko dituen lau ponentzi zeuden bozkatzeko. *Bateginez* ponentzia izan zen aukeratua

### BALORAZIO PUNTUAK

Prozesuko koordinatzaile batek 5 puntutan laburtu du Hernanin prozesua zer izan den: - Eztabaida giro ona eta ikuspegi ezberdinak izan dira. - Parte hartzea ez da nahi hainbestekoa izan. - Estatuaren erasoari erantzun bateratua eman beharraz

adostasuna dago.

- Gaiak tratatu egin dira bai, baina, aurrera begira sakondu behar dira gehiago.

### BATEGINEZ PONENTZIA

Bateginez ponentziaren zenbait puntu (labur-labur): “Oraingo egoera: 1998ko ETaren suetenak egoera berriak ireki zituen. Bi estatuek aukerak mesprezatu zituzten; PNK eta EAK muzin egin diote estrategia nazionalari”.

“Zentso berria egin behar da bere burua Euskalerritarizat dutenekin”.

“Subjektu nazionalen sorrera bultzatu behar da”... □

## Ez da kontzerturik gaur

■ *Etzaki*, *Selekta kolektiboa* eta *DJak* Oialumen zirela jarri genuen atzoko kronikan, baina, kontzertua suspenditu egin da ■ Egiten den egunean jakinaraziko dizuegu.



## Telemar

ITXASTELE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

‘Telefonica’ko banatzailea, Movistar, zentralitak, ‘Centrex’, Faxak, Telefono altak, Telefonía mugikorra, “Via digital”, inalanbrikoak,...

Eskaintza:

Orain, Movistarrera pasa zintezke zure zenbakia mantenduta. Batere kosturik gabe, edozein operadore duzula ere.

## ELKERRO FRUTAK

Bertako produktuak  
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75

Antziola 1, HERNANI



## Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Marisol Yabenen argazki erakusketa ikusgai.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI



## 'Argia Saria' Kronikari

■ Prentsa idatziaren saria jaso du 'Hernani Komunikazioak' lan taldeak ■ Lan taldeak Kronika lagundu duten guztiei eskaini die sari hau.



Kronikak saria jasota pozik, atzoko ekitaldian.

ARGIA sariak prentsa munduan nabarmendutako programa, proiektu eta pertsoneri eskaintzen zaizkie. 'Kronikariak' Egañaren eskutik jaso zuten saria, euskalgintzako jendearen aurrean (Kontseilua, Ikastolak, Aek, Jaurilaritzako ordezkaria...).

### BESTE SARITUAK

Telebistako saria Axier Aranguren jaso zuen. Irrati saria Euskal Herria Irratiko Metropoli forala saioak. Publizitate saria Bizkaiko Foru Aldundiak, e.a. □

## Elur-Txorik Kalderero jaia eta urteurren bazkaria ditu datorren asteburuan

■ Asteartetik ostegunera kaldererotarako entsaioak ■ Kalderero afaria: ostiralean ■ Elkarteko urteurren bazkaria: larunbatean ■ Apuntatzeko: otsailaren 1 arte.

KALDEREROAK gainean ditugu. Elur-Txorik festa eta elkartean afaria antolatzen ditu egun horretarako. Datorren astean, asteartetik ostegunera, Kalderero jairako entsaioak hasiko dira, elkartean bertan. Ordua: arratsaldeko zortziak.

KALDERERO JANTZITA Elur-Txorik ateratako oharrak dioenez, afaritara joateko kalderero jantzita joan behar da derrigorrez.

Afaritarako menua: entsalada, oilasko izterrak, flana eta helatua. 1200 Pta.

URTEURREN BAZKARIA Bestalde, Elur-Txorik urteurren bazkaria du otsailaren 4an. Menua: esparragoak, urdaiazpiko iberikoa, legatza kotxotak eta almejakin, solomilloa, *braso jitanoa* eta kafe kompletoa. 5000 Pta. □

## Interneten barrena Skateko tablarekin

■ Skateren bueltan bildutako gazte koadrilla web orri bat egin nahian dabil.




Skateliariak interneten, atzo, Informatika Aretoan.

KANPOAN ezer antolatzeko eguraldiak ez die segurantzari ematen eta barruan ari dira lanean. Ongintzako Kale Hezitzaileek joan den urrian ekintza saila antolatu zuten (perkusio tailerrak, pintura, skatea...).

Ekintza horietan ibilitako jendeak, beren gustoko gauzak egiten jarraitzeko, bil-tzea erabaki zuen. Zortzi-hamarreko talde bat dago Skatearekin txoratuta. Interneten sartu eta informazio bila ari dira, gerora, beren artean web orri bat egiteko. □

## HITZ BITAN



Itxuratu ederra hartu du Urmea ikastolako fatxadak.

### ✓ URUMEA IKASTOLA

**Fatxada osoa pintatu eta Anagrama zaharra eraberritu dute.** Beste fatxadan (Hernani sarrerakoan), Mural bat margotuko dute kolore bizitan, erdian aingura bat duela; herri sarrera pixka bat alaitze aldera.

### ✓ AEK-KO MATRIKULA

**Edozein urratsetan izena emateko zabalik dago matrikula.** AEK-an euskara ikasi nahi duenak orain du aukera. Ikasle berriak dagoeneko osatuta dauden taldeetan sartuko dira, bakoitza bere urratsean. Tarifak: astean 4 ordu, 10.000 Pta; astean 8 ordu, 20.000 Pta. Udalaren diru laguntzak lortu litzazke. (☎ 943-557101).

<b>AGENDA</b>	<b>◆ ZINEA</b> Karamarro uhartea 17:00etan, Biterin Los Angeles de Charlie 22:30etan, Biterin.  <i>Olga Izquierdoren</i>	<b>Postalak</b> Txema tabernan. <i>Mari Sol Yabenenen</i> kuadroak Ford Antzolan.  <i>Vietnameko argazkiak</i> Zumardi jatetxean.
---------------	--	--

<b>HERIOTZAK</b> Victoriano Ansa Zabala Ostiralean hil zen 75 urte zituela. Hileta, gaur 19:00etan, Juan Bataiatzailearen Parrokian
---

<b>IRRATIAK</b> Irratsaio berezia: (F.M. 99.2) Batasuna prozesua 16:00etan, Niko Elizondo (Arragoa)
--

<b>ZERBITZUAK</b>	
<b>☎ TELEFONOAK</b> ▶Taxiak: 943 550093 ▶Udaltzaingoa: 943 333288 ▶DYA: 943 464622 ▶Autobusak: 943 556662 ▶Anbulatorioa: 943 557750	<b>☎ FARMAZIAK</b> ▶Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7 ☎ 943 552941 ▶Gaez: Sagastiberri Urbieta, 7 ☎ 943 552941

ASTEBURUKO PARTIDUAK			
<b>LARUNBATA</b> <b>■ BOLEIBOLA</b> <i>Euskadiko liga</i> Kiroldegian 18:30etan UPV Hernani - T. Santanderina <i>Euskadiko liga</i> Kiroldegian 16:30etan Hernani KE-CV Haro <b>■ ERRUGBIA</b> 1. Liga Nazionala Plentzian 16:00etan. Kakarraldo-Hernani 2. Euskal Liga Abanton 16:00etan Abanto Minero-Hernani Infantilak. Gipuzkoako Liga Ordizian 10:30etan. Ordizia-Hernani	<b>■ ESKUBALOIA</b> 2. Nazionala: Bilbon 19:45etan Askartza-Hernani <b>■ FUTBOLA</b> <i>Gorengo maila</i> Aita Marin 16:30etan. Zumaiaiko-Hernani <i>Gazteen liga nazionala:</i> Lezaman 16:00etan. Athletic-Hernani <i>Gazteen Ohorezko Liga</i> Zubipen 16:30etan Hernani-Pasajes <i>Kadeteen 2.Maila</i> Zubipen 10:30etan Hernani-Añorga <i>Haurren Ohorezko Liga</i> Zubipen 12:00etan	Hernani-Arrasate <b>■ PELOTA</b> KIROLDEGIAN 16:00ETAN HASITA: <i>Jubenilak eskuz. Udaberri tx:</i> Alvarez San Sebastian Olalde (Antzuola) <i>Pala Motza. Udaberri tx:</i> Ubarretxena-Galartza Oiangui (Ordizia) <b>IGANDEA</b> <b>■ ERRUGBIA</b> <i>Jubenilak. Euskal Selektzioa</i> Zarautzen 10:00etan. <i>Kadeteak. Euskal Selektzioa</i> Landaren 10:00etan <b>■ FUTBOLA</b> 3.maila Garmendipen 17:00etan	Lagun Onak-Hernani <i>Emakumezkoen Liga:</i> Zubipen 11:00etan Hernani-Tolosa <i>Gazteen 2.Maila</i> Martutenen 15:30etan. Amara Berri-Hernani <i>Kadeteen Ohorezko Liga</i> Asti Txikin 11:30etan Zarautz-Hernani <b>■ PELOTA</b> <i>Kadeteak eskuz. Udaberri tx:</i> Arrasaten 11:00etan. Arrasate Otegi-Leonet <b>■ WATERPOLOA</b> 2. Euskal Liga (Mutilak) Gasteizen 16:30etan. Menditxo-Hernani

**GZ**  
**ZARAUTZ GESTORIA**  
 Elkano, 9 behea - 20120 HERNANI  
 Tel. 943 55 60 06 Faxa 943 33 29 38

**PROCOLOR ZENTRUA**  
**Landaribar, s.l.**  
*Pintatze eta dekorazioak*  
*Industri eta dekorazioarako pinturak*  
*Pintatutako papera*  
 Kardaberaz 45 -Tel 943 552131-HERNANI

**OIALUME BILTOKIA.**  
**EUSKAL GIROA**  
 Igande eta jai egun guztietan dantzaldia  
 19:30etatik aurrera.  
**OIALUME AUZOA - 943 55 29 38**